

FUNTSEZKO ELKARKETAK

Gure produktua ekoitzi ahal izateko, hiru elkarketa nagusi egingo ditugu. Honako hauek dira egingo ditugun funtsezko elkarketa nagusi horiek:

Aterkiak zerotik sortu beharrean, Ezpeleta aterki sortzaile enpresarekin elkartuko gara bere aterkiak erabiliz. Aterki



enrpesa hau aukeratu dugu, Euskal Herrian sortutako enpresa bat delako eta mota askotako aterkiak dituztelako, bai diseinuari begiratuta, bai ekonomikoki begiratuta. Eta jakina, kalitatezko aterkiak dituztelako.

Aterkiak horiek edukita, gero, beraien laguntzarekin, aterkiak moldatuko ditugu eguraldia iragartzen duen aterkia bilakatzeko.

Hortaz, Join Venture motako elkarketa izango dugu Ezpeletarekin, horrela Ezpeleta Etorkia enpresa berria sortuz.

Elkarketa hortaz gain, aterkiari, eguraldia iragarri dezan, txip bat jarriko diogu. Txip hori, guk ekoitzi beharrean, MediaTek enpresak ekoiztuko dizkigu. Horrela, MediaTek enpresarekin, bezero-hornitzaile harremanak izango ditugu, hornikuntzen fidagarritasuna bermatzeko.





Azkenik, gure produktua inernetez salduko denez, Amazonekin elkartuko gara gure produktua saldu dezaten. Enpresa honekin edukiko dugun elkarketa mota bezero-hornitzaile harremana izango da, hornikuntzen fidagarritasuna bermatzeko.

Amazonen saltzeaz gain, hainbat denda txiki eta supermerkatuetan salduko dugu ere. Hortaz denda horiekin edukiko dugun elkarketa mota bezero-hornitzaile harremana izango da, Amazonen antzera.